

Kanpoko landare apaingarriak zaintzeko eta mantentzeko tailerra

Doako tailer honetan, kanpoko loreak zaindu eta mantentzeko buruzko hainbat gai landuko dira: substratu motak, ongari kimiko edo organikoen erabileraren arteko desberdintasunak, landareen kokapenaren arabera ureztatze kantitatea, lorontzi motak eta landarea kokatuta dagoen lekuaren arabera lore motaren aukeraketa. Lore apaingarri erabilienean ezaugarriak ere ezagutaraziko dira. Tailerra ekainaren 2an egingo da 18:00etatik 19:00etara Portaleko A batzartokian. Ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea maiatzaren 25etik 30era (biak barne). Plazak mugatuta daude.

Helburuak: Udalerriko balkoi eta leihoetan landare- eta lore-elementuen erabilera sustatzea, ingurumen-kalitatea hobetzen laguntzeko eta hiri-ingurune atsegina eta estetikoa sortzeko.

Kudeaketa-erakundea: Eibarko Udaleko [Ingurumen Saila](#).

Hartzaileak: Adin nagusikoei zuzendua.

Tailerrei buruzko informazioa:

Nork emana: Kimu bat

Tokia: Portalea Kultur Etxea (A batzartokia)

Eguna eta ordua: Ekainak 2, 18:00etatik – 19:00etara

Hizkuntza: Euskara

Ikasle kopurua: gutxienez 5, gehienez 15

Tailerren prezioa: Doakoa

Izena emateko epea: maiatzaren 25etik 30era (biak barne)

Izena emateko modua:

Izena emateko hiru modu daude:

- Maiatzaren 25ean Untzaga plazan egingo den lore banaketan, 10:00etatik 13:00etara.
- Herritarren Zerbitzurako Bulegora (PEGORA) joanda (Asteleheneretik asteazkenera: 8:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Ostegun eta ostiraletan: 8:30etik 14:30era).
- Inprimaki hau betez <https://formularioak.eibar.eus/eu/kanpokoloreak>

Kudeaketa arauak:

Izena emateko epea amaitu ondoren, behin-behineko zerrendak lortuko dira eta taldeak kudeatuko dira.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle kopurua gainditzen ez badu, ikastaroa bertan behera utziko da. Kasu horretan, abisu bat argitaratuko da udalaren webgunean (www.eibar.eus) **2022ko maiatzaren 31an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak gutxienerako ikasle kopurua gainditzen badu, baina ezarritako gehienezko kopurua gainditzen ez badu, izen-emate guztiak onartuko dira.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gehienezko ikasle kopurua gainditzen badu, ikasleen hautaketa inskripzio-ordenaren arabera egingo da.

Ikastaroa emango bada, onartutakoen zerrenda eskuragarri egongo da PEGORAn (Herritarren Zerbitzurako Bulegoan) eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), abisuen atalean, **2022ko maiatzaren 31tik aurrera, 12:00etan**. Hala ere, **tailerra egin aurretik, onartutakoekin posta elektronikoz edo telefonoz kontaktatuko da**.



Informazio gehiago:

ingurumena@eibar.eus / 943 70 84 08